Lehendakaria / Presidente
Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Idazkari - Kidea / Vocal - Secretaria
Mª Aranzazu Arana Learte

**Resolución 1/2019 ebazpena**
Recurso 3/2018 errekurtsoa

ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES (AGISAS) elkarteak buru nahaste larria dutenentzako Beasaingo Errehabilitazio Psikosozialeko Zentroko (EPZ) zerbitzu kontratuaren baldintza agirien aurka aurkeztutako kontratazio alorreko errekurtso berezian, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, gaurko bileran, goian adierazitako kideak bertan direla, ondorengo erabakia hartu du, aho batez.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES (AGISAS) contra los pliegos del contrato del servicio de Centro de Rehabilitación Psicosocial (CRPS) para personas con trastorno mental severo de Beasain, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

## AURREKARIAK

**LEHENA.-** Auzitegi honetako erregistroan 2018ko abuztuaren 6an aurkeztu zen idatziaren bidez, AGUISAS elkarteak kontratazio alorreko errekurtso berezia aurkeztu zuen ebazpen honen goiburuan aipatutako kontratuaren baldintza agirien aurka.

**BIGARRENA.-** Abuztuaren 8an eta 16an Auzitegiak errekerimendua egin zion errekurtsoa aurkeztu zuen elkarteari, atzemandako akatsak zuzentzeko. Zuzenketa egin ondoren, abuztuaren 22an, Auzitegiak Gizarte Politikako Departamentuari helarazi zion errekurtsoa, eta kontratazio espedientea zein bidezko txostena eskatu zizkion, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 56.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

**HIRUGARRENA.-** Kontratazio espedientea eta txostena irailaren 21ean iritsi ziren Auzitegira.

## ANTECEDENTES DE HECHO

**PRIMERO.-** Mediante escrito presentado en el registro de este Tribunal el día 6 de agosto de 2018, AGISAS interpuso recurso especial en materia de contratación contra los pliegos que rigen el contrato citado en el encabezamiento de esta resolución.

**SEGUNDO.-** En fechas 8 y 16 de agosto el Tribunal requirió al presentador del recurso para que subsanara los defectos advertidos. Realizada la subsanación, en fecha 22 de agosto el Tribunal remitió el recurso al Departamento de Políticas Sociales y le solicitó, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), el expediente de contratación y el correspondiente informe.

**TERCERO**.- El expediente de contratación y el correspondiente informe tuvieron entrada en el Tribunal el día 21 de septiembre.

**LAUGARRENA.-** SPKLk 56.3 artikuluan agintzen duena betez, irailaren 25ean errekurtsoaren berri eman zitzaion proposamena aurkeztu zuen enpresa bakarrari, Casa de Hermanas Hospitalarias AITA MENNI entitateari alegia, bost egun balioduneko epean alegazioak aurkez zitzan, baina ez du alegaziorik aurkeztu.

**CUARTO.-** En cumplimiento del artículo 56.3 LCSP, en fecha 25 de septiembre se dio traslado del recurso a la entidad Casa de Hermanas Hospitalarias AITA MENNI, única empresa que ha presentado proposición, para que en el plazo de cinco días hábiles pudiera formular alegaciones, sin que haya presentado ninguna.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

### Errekurtsoaren onargarritasuna

### Admisibilidad del recurso

**LEHENA.-** Errekurtso berezi hau aurkezten da Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 44.1.a) artikuluan aurreikusitako zerbitzu kontratu baten baldintza agirien aurka. Kontratu horren balio zenbatetsia 995.904 euro da.

**PRIMERO.-** El presente recurso especial se interpone contra los pliegos de un contrato de servicios de los contemplados en el artículo 44.1.a) LCSP cuyo valor estimado asciende a 995.904 euros.

Beraz, kontratazio alorreko errekurtso berezia jar daiteke errekurritutako egintzaren aurka, hala xedatzen baitu SPKLren 44.2.c) artikuluak; eta errekurtso horren berri izateko eskumena Auzitegi honi dagokio, irailaren 28ko kontratazio-alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzeko 24/2010 Foru Dekretuaren 2.1 artikuluan esleitzen baitzaio.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo el artículo 44.2.a) LCSP y la competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**BIGARRENA.-** Errekurtsogilea errekurtsoa jartzeko legitimatuta dago, hala xedatzen baitute Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 48. artikuluan, eta 814/2015 Errege Dekretuak, irailaren 11koak, kontratuen alorreko erabakiak berrikusteko prozedura berezien Erregelamendua onartzekoak, 24.1 artikuluan, aurkaratzen dituen agirien kontratuaren xedearekin zerikusia duten interesak ordezkatzen dituen elkartea delako, eta bertako kideen interes kolektiboak defenditzen dituelako.

**SEGUNDO.-** La recurrente está legitimada para interponer el recurso, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP y en el artículo 24.1 del Reglamento de los procedimientos especiales de revisión de decisiones en materia contractual, aprobado por Real Decreto 814/2015, de 11 de septiembre, puesto que se trata de una asociación representativa de intereses relacionados con el objeto del contrato cuyos pliegos impugna, y actúa en defensa de los intereses colectivos de sus asociados.

**HIRUGARRENA.-** Errekurtsoa aurkeztu da 50.1.b) artikuluan aurreikusten duen epearen barruan, hau da, hamabost egun balioduneko epean, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu zen egunaren biharamunetik aurrera.

**TERCERO**.- El recurso ha sido interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.b) contados a partir del día siguiente a aquél en que se publicó el anuncio en el perfil de contratante.

**Auziaren mamia**

**LAUGARRENA.-** AGISAS elkarteak errekurtsoa jarri du buru nahaste larria dutenentzako Beasaingo Errehabilitazio Psikosozialeko Zentroko (EPZ) zerbitzuaren kontratazio espedienteko ezaugarri teknikoen agiriaren aurka; lizitazioa Gizarte Politikako Departamentuak egin du, eta Diputatuen Kontseiluaren 2018ko ekainaren 26ko erabakiaz onartu zen.

Ezaugarri teknikoen agiriko II apartatuan esaten denez, kontuan hartuta 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa, gaixotasun mental kronikoa duten pertsonentzako eguneko zerbitzuak edo zentroak izaera soziosanitarioko tresnak dira, zeinetan diziplina anitzeko talde profesional batek gauzatutako jardun sorta antolatu eta koordinatu baten bitartez, hartzaileen garapen pertsonal eta soziala, autonomia eta gizarteratzea xede dituen arreta gaitzaile integrala ematen den.

Buru nahaste larria dutenentzat Beasainen dagoen EPZ zerbitzu honek, aldi baterako edo modu iraunkorrean, mendetasun egoeran dauden pertsonei arreta indibidualizatua eta integrala eskaintzen die egunez, autonomia pertsonala hobetzeko edo autonomia pertsonalaren ahalik eta maila hoberenari eusteko, muga funtzionalak konpentsatzeko eta ohiko zaintzaileei laguntzeko, prebentzioko, gaikuntzako eta asistentziako prestazioen bitartez. Prestazio horiek gaitzera eta gaitasunak garatzera bideratuta daude autonomia pertsonala lortzeko eta komunitate ingurunean parte hartzeko.

Intentsitate ertain eta handiko zerbitzua da eta honako hauek bermatzen ditu: a) zerbitzuan edo zentroa irekita dagoenean zaintzaileen eta hezitzaileen presentzia etengabea izatea; eta b) profesionalen diziplina anitzeko talde baten laguntza izatea, ongizate fisikoa, psikologikoa eta

**Fondo del asunto**

**CUARTO.-** AGISAS recurre el pliego de cláusulas técnicas (PCT) del expediente de contratación del servicio de Centro de Rehabilitación Psicosocial (CRPS) para personas con trastorno mental severo de Beasain, licitado por el Departamento de Políticas Sociales y aprobado mediante acuerdo del Consejo de Gobierno Foral adoptado en sesión celebrada el 26 de junio de 2018.

Tal como se recoge en el apartado II del PCT, en virtud del Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, los servicios o centros de día para personas con enfermedad mental crónica son dispositivos de naturaleza sociosanitaria que, mediante un conjunto organizado y coordinado de actuaciones desarrolladas desde un equipo profesional multidisciplinar, les proporcionan una atención rehabilitadora integral orientada, en todo lo posible, a facilitar su desarrollo personal social, su autonomía y su integración social.

Este servicio de CRPS para personas con trastorno mental severo de Beasain ofrece, con carácter temporal o permanente, una atención individualizada e integral durante el período diurno a las personas con enfermedad mental crónica, con el objetivo de mejorar o mantener su nivel de autonomía personal, compensar sus limitaciones funcionales y dar apoyo a sus cuidadores y cuidadoras habituales, mediante prestaciones preventivas, habilitadoras y asistenciales orientadas a la capacitación y al desarrollo de competencias para la autonomía personal y para la participación en el entorno comunitario.

Es un servicio de media y alta intensidad, que garantiza: a) la presencia permanente de personal cuidador y de personal educativo durante las horas de apertura; y b) el apoyo de un equipo multidisciplinar de profesionales con los perfiles idóneos para la prestación de una atención integral

soziala xede dituen arreta integrala eskaintzeko beharrezkoak diren profilak betez.

orientada al bienestar físico, psicológico y social.

AGISAS elkarteak bi apartatu inpugnatzen ditu zehazki: X. apartatua, «giza baliabideak eta antolaketa», eta XI. apartatua, «langileen prestakuntza». Idatzian eskatzen du apartatu horiek deuseztatzea, eta argitaratzea baldintza agiri berri bat, non zehaztuko baita errehabilitazio psikosozialeko begirale eta/edo desgaitasuneko begirale lanetarako ezinbestekoa dela gizarteratzeko goi mailako teknikari titulua edo errekurtsoan aipatzen dituen titulu baliokideetakoren bat edukitzea.

AGISAS impugna, en concreto, el apartado X relativo a los recursos humanos y organización, así como el apartado XI referente a la formación del personal. En el suplico del escrito solicita que se anulen dichos apartados y que se publique un nuevo pliego en el que se delimite que para las ocupaciones de monitor de rehabilitación psicosocial y/o monitor de discapacidad, sea imprescindible estar en posesión del título oficial de técnico superior en integración social o de las titulaciones equivalentes que menciona en el recurso.

**BOSGARRENA.-** Kontratua egikaritzeko beharrezkoak diren kategoria profesionalak kontratazio organoak ezarri behar ditu. SPKLko 76.2 artikuluaren arabera, kontratazio organoek aukera izango dute lehiatzaileei edo lizitatzaileei eskatzeko, baldintza agirietan horrela jasota utzi badute, beren kaudimena edo –hala badagokio– sailkapena egiaztatzeaz gain konpromisoa har dezatela kontratua egikaritzeko behar diren giza bitartekoak edo bitarteko materialak jartzeko. Konpromiso horiek kontratuan sartuko dira, eta baldintza agirietan edo kontratuaren agirian funtsezko obligaziotzat jo beharko dira, 211. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, edo zigorrak ezarri beharko dituzte, 192.2 artikuluan adierazitakoaren arabera, adjudikaziodunak konpromiso horiek betetzen ez baditu ere.

**QUINTO.-** Las categorías profesionales necesarias para la ejecución del contrato deben ser fijadas por el órgano de contratación. Según el artículo 76.2 LCSP los órganos de contratación podrán exigir a los candidatos o licitadores, haciéndolo constar en los pliegos, que además de acreditar su solvencia o, en su caso, clasificación, se comprometan a dedicar o adscribir a la ejecución del contrato los medios personales o materiales suficientes para ello. Estos compromisos se integrarán en el contrato, debiendo los pliegos o el documento contractual atribuirles el carácter de obligaciones esenciales a los efectos previstos en el artículo 221, o establecer penalidades, conforme a lo señalado en el artículo 192.2, para el caso de que se incumplan por el adjudicatario.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 76.3 artikuluan xedatzen duenez, giza baliabideen edo bitarteko materialen atxikipena egitea, kaudimenaren baldintza gehigarri gisa, arrazoizkoa eta justifikatua izan behar du, eta proportziozkoa kontratuaren garrantzia eta ezaugarriak kontuan hartuta, horrek mugatu ez dezan enpresen parte hartzea lizitazioan.

Y el artículo 76.3 LCSP dispone que la adscripción de los medios personales o materiales como requisitos de solvencia adicionales debe ser razonable, justificada y proporcional a la entidad y características del contrato, de forma que no limite la participación de las empresas en la licitación.

Kasu honetan, giza bitartekoak atxikitzeko konpromisoa kontratua egikaritzeko funtsezko obligazio gisa jaso da, kontratazio organoarentzat ezinbestekoa baita zerbitzua emateko, eta hala jaso du berariaz administrazio klausula partikularren

En el presente caso, el compromiso de adscripción de medios humanos se configura como una obligación esencial de ejecución del contrato que el órgano de contratación estima necesaria para la prestación del servicio, y así se recoge

agiriko ezaugarrien taulako 22. apartatuan.

Azaldutakoaren arabera, eta ezaugarri teknikoen agiriko X. apartatuan adierazi bezala, kontratazio organoak erabaki du ezen, aurreikusitako zerbitzuak ahalik eta ongien eman ahal izateko, ezinbestekoa dela adjudikaziodunak bermatzea, aztertzen ari garenari dagokionez, langile terapeutiko hauek, ezaugarri teknikoen agiriko IV eranskinean adierazten den arduraldiarekin: zaintzailea, gizarte langilea, psikologoa, zentroko zuzendaria eta terapeuta okupazionala.

Aurreikuspen hori osatzen da XI. apartatuan langileen prestakuntzari buruz ezarritakoarekin; izan ere, bertan, lehendabizi esaten da langile guztiek eduki beharko dutela II. apartatuan zehaztutako zerbitzuak dagokien bezala eman ahal izateko beharrezkoa den prestakuntza, eta ondoren honakoa argitzen da: «*Zaintzaileek beren kualifikazioa egiaztatu beharko dute, Gizarte Politikako, Familia gaietarako eta Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretarako Estatuko Idazkaritzaren 2008ko abenduaren 2ko Ebazpenean (EAO 2008/12/17) eta hura aldatzeko Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Estatuko Idazkaritzaren 2015eko azaroaren 3ko Ebazpenean (EAO 2015/11/16) ezartzen denaren arabera aurreikusitako prozedurak eta egutegia betez*».

**SEIGARRENA.-** Errekurtsogileak ezaugarri teknikoen agiria inpugnatu du, ulertzen baituelako errehabilitazio psikosozialeko begirale lanetarako eta/edo desgaitasuneko begirale lanetarako ezinbestekoa dela gizarteratzeko goi mailako teknikari titulu ofizialaren edo beste titulazio baliokideren baten jabe izatea.

Lehenik eta behin, eta elkarte horrek berak beste zerbitzu kontratu baten aurka aurkeztutako errekurtsoaren harira Auzitegi honek abenduaren 11n emandako 9/2018 Ebazpenean adierazi bezala, lanbide tituludunen eskumenei buruzko jurisprudentziara jo behar da, eta bertan behin eta

expresamente en el apartado 22 del cuadro de características del pliego de cláusulas administrativas particulares (PCAP).

De acuerdo con lo expuesto, y tal y como se recoge en el apartado X del PCT, el órgano de contratación ha determinado que para poder prestar de forma óptima los servicios previstos es necesario que la entidad adjudicataria garantice, en lo que ahora interesa, la dotación del siguiente personal terapéutico y con la dedicación que se indica en el Anexo IV del PCT: cuidador/a, trabajador/a social, psicólogo/a, director/a de centro y terapeuta ocupacional.

Dicha previsión se completa con lo establecido en el apartado XI respecto a la formación del personal, donde, después de señalar que todo el personal deberá tener la formación necesaria para poder prestar de una forma adecuada los servicios detallados en el apartado II, se aclara que *"el personal cuidador deberá acreditar su cualificación mediante los procedimientos y el calendario previsto en base a lo establecido en la Resolución de 2 de diciembre de 2008, de la Secretaría de Estado de Política Social, Familias y Atención a la Dependencia y a la Discapacidad (BOE 17/12/2008) y su modificación mediante Resolución de 3 de noviembre de 2015, de la Secretaría de Estado de Servicios Sociales e Igualdad (BOE 16/11/2015)"*.

**SEXTO.-** La recurrente impugna el PCT porque considera que para las ocupaciones de monitor de rehabilitación psicosocial y/o monitor de discapacidad es imprescindible estar en posesión del título oficial de técnico superior en integración social o titulación equivalente.

En primer lugar, y como ya ha afirmado este Tribunal en la Resolución 9/2018, de 11 de diciembre, con ocasión del recurso interpuesto por la misma asociación frente a otro contrato de servicios, debe recordarse la doctrina jurisprudencial relativa a las competencias de las

berriz esaten da lehentasuna ematen zaiola askatasunaren printzipioari gaitasunarekin, esklusibotasunaren eta eskumen monopolioaren aldean.

profesiones tituladas, que de forma reiterada señala la prevalencia del principio de libertad con idoneidad sobre el de exclusividad y monopolio competencial.

Hala, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Auzitegi Administratibo Zentralaren 2015eko apirilaren 10eko 319/2015 ebazpenean, honako hau jasotzen da:

Así, en la Resolución del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales 319/2015, de 10 de abril de 2015, se recoge al respecto lo siguiente:

> "En efecto, si acudimos a la doctrina jurisprudencial dictada en esta materia, de su examen cabe destacar una idea fundamental: frente al principio de exclusividad y monopolio competencial ha de prevalecer el principio de "libertad con idoneidad" (por todas, STS de 21 de octubre de 1987 (RJ 1987,8685), de 27 de mayo de 1998 (1998,4196), o de 20 de febrero de 2012 (JUR 2012,81268)), principio este último coherente con la jurisprudencia del TJUE sobre la libre concurrencia (SSTJUE de 20 de septiembre de 1988 y de 16 de septiembre de 1999), debiendo dejarse abierta la entrada para el desarrollo de determinada actividad, como regla general, a todo título facultativo oficial que ampare un nivel de conocimientos técnicos que se correspondan con la clase y categoría de las actividades a desarrollar (STS de 10 de julio de 2007 (RJ 2007,6693)). En este sentido, en la STS de 22 de abril de 2009 (RJ 2009,2982) se afirma lo siguiente:
>
> "[…] *Con carácter general la jurisprudencia de esta Sala viene manteniendo que no puede partirse del principio de una rigurosa exclusividad a propósito de la competencia de los profesionales técnicos, ni se pueden reservar por principio ámbitos excluyentes a una profesión, y aun cuando cabe la posibilidad de que una actividad concreta pueda atribuirse, por su especificidad, a los profesionales directamente concernidos, esta posibilidad debe ser valorada restrictivamente, toda vez que la regla general sigue siendo la de rechazo de esa exclusividad, pues […] la jurisprudencia ha declarado con reiteración que frente al principio de exclusividad debe prevalecer el de libertad con idoneidad, ya que, al existir una base de enseñanzas comunes entre algunas ramas de enseñanzas técnicas, éstas dotan a sus titulados superiores de un fondo igual de conocimientos técnicos que, con independencia de las distintas especialidades, permiten el desempeño de puestos de trabajo en los que no sean necesarios unos determinados conocimientos sino una capacidad técnica común y genérica que no resulta de la titulación específica obtenida sino del conjunto de los estudios que se hubieran seguido".*
>
> Es importante destacar que no se trata del reconocimiento de un derecho a la igualdad de todos los profesionales, sino de aquéllos que tienen la "capacidad técnica real para el desempeño de las respectivas funciones", elemento éste que, a falta de previsión normativa, debe ser objeto de un análisis casuístico. En definitiva, la jurisprudencia rechaza el monopolio de competencias a favor de una profesión técnica determinada al mantener la necesidad de dejar abierta la entrada a todo título facultativo oficial que ampare un determinado nivel de conocimientos técnicos".

Bigarrenik, adierazi behar da kontratazio organoak, beharrezkoak diren giza baliabideak zehazterakoan, langile terapeutiko gisa «zaintzaileak» sartzen dituela. Ez ditu aipatzen ez errehabilitazio psikosozialeko begiraleak, ez desgaitasuneko begiraleak.

En segundo lugar, es preciso aclarar que el órgano de contratación, al determinar los recursos humanos necesarios, incluye como personal terapéutico al "cuidador". No menciona al monitor de rehabilitación psicosocial ni al monitor de discapacidad.

39/2006 Legeak, abenduaren 14koak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, 34. artikuluan aurreikusten duenaren arabera, Gizarte Zerbitzuen eta Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren Lurralde Kontseiluari dagokio irizpide komun batzuk zehaztea, zentroak, zerbitzuak eta entitateak egiaztatzeko, autonomia erkidegoetako eskumenak dena delakoak izanik ere.

De conformidad con lo previsto en el artículo 34 de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, corresponde al Consejo Territorial de Servicios Sociales y del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia fijar los criterios comunes de acreditación de centros, servicios y entidades, sin perjuicio de las competencias de las Comunidades Autónomas.

2008ko azaroaren 27ko erabakiaz (azaroaren 27ko Estatuko Aldizkari Ofiziala), aipatu Lurralde Kontseiluak irizpide komun batzuk onartu zituen, Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistemako zentroen eta zerbitzuen kalitatea bermatzeko. Bertan zehaztu zen zer giza baliabide behar diren zerbitzua egoki ematen dela bermatzeko, eta zer kualifikazio profesional egiaztatu behar duten langileek. Horri buruz egun indarrean dagoen testua Lurralde Kontseiluak 2017ko urriaren 19an onartu zuena da (abenduaren 30eko EAO).

Mediante un Acuerdo adoptado el 27 de noviembre de 2008 (Boletín Oficial del Estado de 17 de diciembre) el citado Consejo Territorial aprobó criterios comunes de acreditación para garantizar la calidad de los centros y servicios del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia (SAAD). En él se especifican los recursos humanos necesarios para garantizar la adecuada prestación del servicio, así como la cualificación profesional que debe acreditar el personal. La redacción vigente sobre este extremo es la aprobada mediante Acuerdo del Consejo Territorial de 19 de octubre de 2017 (BOE de 30 de diciembre).

Erabaki horren arabera, gizarte zentroetan edo erakundeetan lan egiten duten zaintzaileek lanbide ziurtagiri hau egiaztatu behar dute: gizarte erakundeetan mendekotasuna duten pertsonei arreta soziosanitarioa emateko profesionaltasun ziurtagiria, 2007ko urriaren 19ko 1368/2007 Errege Dekretuak ezarritakoa, hura garatzen duen araudiak xedatutakoaren arabera. Horretarako kontuan hartuko dira bertan aipatzen diren tituluak eta ziurtagiria, eta horien artean dago, berrikuntza gisa, Gizarteratzeko Goi Mailako Teknikari titulua, 1074/2012 Errege Dekretuak, uztailaren 13koak, ezarritakoa, edo 2061/1995 Errege Dekretuak, abenduaren 22koak, ezarritako Gizarteratzeko Goi Mailako Teknikariaren titulu baliokidea, erabakia argitaratu zen egunean, hots, 2017ko abenduaren 30ean zaintzaile edo geriatriako zaintzaile kategoria profesionalean lanean ari ziren langileentzat.

En virtud de dicho Acuerdo los cuidadores que presten sus servicios en centros o instituciones sociales deberán acreditar la cualificación profesional de Atención Sociosanitaria a Personas Dependientes en Instituciones Sociales, establecida por el Real Decreto 1368/2007, de 19 de octubre, según se determine en la normativa que la desarrolle. A tal efecto, se considerarán los títulos y el certificado que allí se mencionan, entre los cuales se encuentra, como novedad, el título de Técnico Superior en Integración Social, establecido por el Real Decreto 1074/2012, de 13 de julio, o el título equivalente de Técnico Superior en Integración Social establecido por el entonces Real Decreto 2061/1995, de 22 de diciembre, para aquellos profesionales que a la fecha de publicación del Acuerdo, 30 de diciembre de 2017, se encuentren trabajando en la categoría profesional de cuidador o gerocultor.

Beraz, kualifikazio profesionala aplikatzekoa den araudiak ezarritako tituluen edo profesionaltasun ziurtagirien bidez egiaztatu behar da, eta araudi hori da Gizarte Zerbitzuen eta Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren Lurralde Kontseiluaren 2008ko azaroaren 27ko erabakia, 2017ko urriaren 19ko erabakiak emandako idazketarekin; eta kontratuaren ezaugarri teknikoen agiriak azkeneko aldaketa hori ez aipatzeak ez du esan nahi, inola ere, gizarteratzeko teknikariek lizitazioaren objektu den zerbitzuan zaintzaile gisa lan egin ezin dutenik.

Por tanto, la cualificación profesional debe acreditarse a través de los correspondientes títulos o certificados de profesionalidad fijados por la normativa de aplicación, que es el Acuerdo de 27 de noviembre de 2008 del Consejo Territorial de Servicios Sociales y del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia, en la redacción dada por el Acuerdo de 19 de octubre de 2017, y el hecho de que en el PCT del contrato no se haga mención a esta última modificación no supone, en modo alguno, que los integradores sociales no puedan trabajar como cuidadores en el servicio objeto de licitación.

Ez dagokio kontratazio organoari erabakitzea zer titulaziok gaitzen duten pertsona bat zaintzaile lanak egiteko, baina bai dagokiola berari erabakitzea zer langile terapeutiko behar diren proiektatutako kontratuaren bidez estali nahi diren beharrei erantzuteko. Funtzio horiek betetzeko gaitzen duten titulazioak dira legez gai horretan eskumena duen organoak zehaztutakoak, eta, beraz, ezin da onartu elkarteak eskatzen duena, hau da, baldintza agirien bidez zerbitzu horren prestazioa esklusibotasunez gordetzea elkarte errekurtsogileak ordezkatzen duen kolektiboarentzat.

No corresponde al órgano de contratación determinar las titulaciones que habilitan para desempeñar las funciones de cuidador, pero sí le corresponde determinar el personal terapéutico necesario para satisfacer las necesidades que pretenden cubrirse mediante el contrato proyectado. Las titulaciones que habilitan para el ejercicio de esas funciones son las determinadas por el órgano al que la ley atribuye la competencia en la materia, y por tanto no puede prosperar la pretensión de la asociación recurrente de reservar a través de los pliegos la exclusividad de la prestación del servicio para el colectivo cuyos intereses defiende.

**ZAZPIGARRENA.-** Ez da antzeman fede txarrik edo ausarkeriarik errekurtsoa aurkeztean, Auzitegia errekurtsogileari isun bat jartzera eraman dezakeena, SPKLak 58.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

**SÉPTIMO.-** No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a la recurrente una multa en los términos previstos en el artículo 58.2 LCSP.

Ondorioz, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

En su virtud, este Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

**ERABAKITZEN DU**

**ACUERDA**

Ezestea ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES elkarteak aurkeztutako kontratazio alorreko errekurtso berezia.

Desestimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Donostia, 2019ko urtarrilaren 18a / San Sebastián, 18 de enero de 2019.**